

## **AZPEITIA / Liburu zaletasuna pizteko, ipuin kontaketak**

### **Bihar Maite Franko izango da Azpeitiko Udal Liburutegian 18.00etan**

Azpeitia. Haur eta gazteen liburu zaletasuna suspertzeko helburuarekin, Azpeitiko Udal Liburutegiak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hainbat ipuin kontaketa antolatu ditu abendura bitartean egiteko.

Ekitaldi hauek, lau eta bederatzi urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta daude. Iraileko, urriko, azaroko eta abenduko astelehenetan eta asteazkenetan burutuko dira eta, besteak beste, Pello Añorga, Maite Franko edota Lamiak taldeko Mertxe ipuin kontalariak izango dira.

Aurtengo lehendabiziko saioa bihar arratsaldean izango da. Azpeitiko Udal Liburutegian, Maite Franko ipuin kontalaria izango da 18.00etatik aurrera. Biharko ekitaldia Haur Hezkuntzako 4 eta 5. mailetako haurrei zuzendua dago, hau da, lau eta bost urte duten umeei parte hartu ahal izango dute. >k.f.